

Xabier Letona



DANI BLANCO

Aldaketa: lau alderdiko gobernua Nafarroan

NAFARROAN ez dira hauteskundeak aurreratu, baina joan den asteko *navarrometroak* datorren Foru Legebiltzarrerako emandako emaitzek (Podemos 18 eserleku, EH Bildu 11, UPN 8, PSN 5, Geroa Bai 4, Ezkerra 2, PP 1 eta UPyD 1) gutxitan moduan aztoratu dute panorama politiko-mediatikoa. Angelu gehienetatik egindako irakurketa nagusia zera izan da: ez dira sinesgarriak, baina aldaketarako joera oso argia adierazten dute hauteskundeetarako. Inkestak aspertzaraino izango direnez datozen sei hilabeteetan, joera horiek joango dira zehazten apurka.

Eta hauteskundeen biharamunean moduan, emaitzen ostean balizko akordioetarako unea dator. Inkestaren muturrera joz, UPNk hauteskundeak berak irabaziko dituela adierazi du. Norekin egingo lukeen akordiorik ez, baina esan beharrik ere ez.

Begirada guztiak Podemosen jarri dira eta haien bozeramaile Joan Boschek bere iritzia eman du, berak Geroa Bai eta Ezkerrearekin egingo luke akordioa, baina Bildurekin egin nahi izango dutenak ere izango direla aitortu du. Eta Bildu urrutitik ikusi nahi ez dutenak ere izango dira haserrearen alderdian. EH Bilduko Adolfo Araizek argi adierazi du, prest daude Podemosekin biltzeko. Askok du EH Bilduk irabazteko aliantza horretatik, baina Podemosek ere bai, behintzat herritarrei eta beren programa eta ideiei begira. Berriz ere, baina, Espainiako beren batzar osoak erabakiko du ahal den ala ez. Eta gaurko Bildurekiko erantzuna Espainian ezetza da. Aldaketatik begiratuta, berau eskatzen duten lau alderdien gobernua litzateke logikoena eta eraginkorra: Podemos, EH Bildu,

Geroa Bai eta Ezkerra. Gaitza? Bai, baina kalean azken lau urteetan behin eta berriz elkartu diren boto emaleen borondateari lotuz gero, ez luke hain zaila behar.

Desagertutako izarra bailitzan, *navarrometroa* itzaliko da apurka, baina bere argi izpiak 2015eko maiatzaren amaieraraino luzatuko dira dagoeneko, besteak beste UPNko hautagaiaren sei hilabete-ko gurutze-bideari argi eginez. Eta nor ote berau? José Javier Esparza sailburua, Juan Ramón Rábade Tuterako Ospitaleko zuzendaria edo Amelia Salanueva senataria? Hilaren 29an erabakiko du UPNko Kontseilu politikoak. Barcinaren dimisioarekin –barka manipulazio txikia– eta *navarrometroarekin* Nafarroako eskuina hasi da botorako tronpeta jotzen. Pentsa baino gehiago estutuko dute lehia, baina denak adierazten duenez, oraingoan galtzeko.

Joan Boschek bere iritzia eman du, Geroa Bai eta Ezkerrearekin egingo luke akordioa

JOSEP FONTANA irakurtzea plazer da beti, ikasgaia bata bestearen atzean. Zorroztasuna eta zuhurtzia darion historialariari Katalunia independenterik nahi duen galdetu dio kazetariak elkarriketan: “Bai horixe. Baina jabetzen naiz zailtasunez. Arrazoi askorenatik, ez zait iruditzen epe motzean lor daitekeen helburua denik. Indarrez irabazi behar bada, Kataluniak ez du armadarik. Eta zail ikusten dut beste era batera –negoziazioz– irabazteko aukera, batzuk zein besteak ez baitaude

amore ematekotan eta nazioarteko testuingurua ere ez da aldekoa. Badakit ez naizela berau ikusteko biziko”.

Suhiltzaile lanetan dabil Fontana, A9aren ostean baretzen ez den Kataluniako sutean. Eta zer egingo du Masek azkenean? Lortuko du ERC hauteskunde zerrenda bateratura eramatea? Oriol Junquerasen alderdiak ezetz esan zuen joan den astean, baina argi dago oraindik ez direla atek itxi, are gutxiago A9an Masen irudiak aparrak moduan gora egin ondoren. Eta are gutxiago soberanismoak Masen aurkako kereila Kataluniako herriaren aurkako eraso gisa hartu duenean. A9aren aurreko asteetan bezala, orain ere azken uneak erabakiko du Masen proposamena. Eta ERCrena. Gero eta garbiago dago, hala ere, martxoan amaitu aurretik egingo direla hauteskundeak. Hori inork gutxi jar-
tzen du zalantzan. *El Periódico*

iragan asteburuan ezagutzera emandako inkestaren arabera, elkarrekin baino (58 eta 60 artean) banatuta eserleku gehiago lortuko lituzkete (63 eta 67 artean).

Masek independentziaren aldeko hautua egina ei du datorren legealdirako, beti ere, *La Vanguardia* kronista politikoa den Isabel García Paganen berbak aintzat hartzekotan. Honen esanetan, batera edo banatuak joanda, bi indar hauek gehiengo osoa lortuz gero, Masek bi helburu izango lituzke datorren legealdirako: edo Espainiarekin egiazko kontsulta adostea Kataluniaren etorkizuna erabakitzeko, edo Espainiako Gobernuarekin independentzia negoziatzea. ■

